

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Alkatearen 2025eko ekainaren 26ko Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, jaiotze tasa sustatzeko dirulaguntzak emateko 2025eko deialdiko akatsak zuzentzen dira

BDNS(Identif.): 838072.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/conocatoria/838072>).

JAIOTZE-TASA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

Lehena. Onuradunak

Ordenantza honetan araututako laguntzak jaso ahal izango dituzte bizilekua eta benetako bizilekua Udal honetan duten gurasoek, gutxienez bi urte lehenago erditu aurretik.

Bigarrena. Helburua

Ordenantza honen xedea da Kanpezuko Udalak jaiotza-tasa sustatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak eta araubide juridikoa arautzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2012ko uztailaren 10eko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartu ziren jaiotza-tasa eta erroldatzea sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak, eta 2012ko urriaren 29ko ALHAOn argitaratu ziren (124. zk.).

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoak honako hauek izango dira:

1. Laguntza ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa izango da, eta ordenantza honetan ezarritako baldintzak betez emango da.

2. Laguntzaren zenbatekoa familia-unitatea osatzen duten aitaren eta amaren errenta-mailaren araberakoa izango da: bostehun (500,00) eta mila (1.000,00) euro artekoa.

Horretarako, aurreko ekitaldian deklaraturako familia-unitatearen diru-sarrerak alderatuz, honako bi diru-sarreraren tarte hauek eta horietako bakoitzari dagokion zenbatekoa ezartzen dira:

a) 35.000,00 eurotik beherako errenten kasuan, zenbatekoa mila (1.000,00) eurokoa izango da.

b) 35.000,00 euro edo gehiagoko errentetarako, zenbatekoa bostehun (500,00) eurokoa izango da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

ALHAOn oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik 2025eko abenduaren 31ra arte.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko ekainaren 26a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO